



**PARTAIDETZA TXOSTENA, IRAKASLEEK FROGA DITZAKETEN BERARIAZKO
ESKAKIZUNAK ZEHAZTU ETA HORIEK EGIAZTATZEKO PROZEDURA
EZARTZEN DUEN FORU AGINDUAREN PROIEKTUAREN INGURUAN.**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-Sektore Publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, foru lege baten aurreproiektua edo erregelamendu baten proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarrek eta ordezkaritza handieneko erakundeek.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatua dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Horrez gain, k) apartatua esan bezala, eskubidea izanen du parte hartu duen prozeduraren behin betiko emaitza publiko egiteko, eta hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten berri eman dakiola, parte hartzeko prozesu publikoari buruzko informazioa barne. Gainera, 21. artikulua azaltzen duenez, Nafarroako Administrazio Publikoek argitara emanen dituzte prestatzen ari diren araugintzako prozedurak, tramitazioaren zein unetan dauden adierazita, baita herritarren parte-hartzearen emaitza ere, iritzia emateko aurkeztu zaizkien prozesu guztietan.

Herritarrek aldeztutako kontsultan parte hartzeko aukera izan zuten, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztuz, 2021eko urriaren 28tik azaroaren 18ra bitartean. Aukera hori gauzatu ahal izateko, interesdunen eskura jarri zen helbide elektronikoa hau: rjurpers@navarra.es. Partaidetza prozesu hori amaitu zen ekarpenik aurkeztu gabe.

Ondoren, Irakasleek frogatzen dituzten berariazko eskakizunak zehazteko eta horiek egiaztatze prozedura ezartzen duen Foru Aginduaren proiektua egin ondoren, herritarrek parte hartzeko tramitea bete zen, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuta, 2021eko abenduaren 10etik abenduaren 30era. Aipatutako helbide elektronikoa interesdunen eskura jarri zen, eta ez zen ekarpenik jaso.

Era berean, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan azarritakoa betetz, Foru Aginduaren proiektua Unibertsitateaz Kanpoko Irakasleen Mahai Sektorialean negoziatu zen 2021eko urriaren 26an.



Sindikatu gehienak ez zeuden ados Online Prestakuntzaren profila desagertzearekin, eta UG Tk adierazi zuen ez zegoela ados Prebentzioaren profila desagertzearekin, eta Osasunaren profila kentzeko eskatu zuen. Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiak ekarpen horiek aztertu ondoren, Foru Aginduaren proiektuak Online Prestakuntzaren eta Prebentzioaren profilak ezabatzen jarraitzen du, eta Osasunaren profila mantentzen du.

Bestalde, STEILASek eskatu zuen espezialitate bakoitzerako profila urtean behin eta ikasturte osorako aktibatzeko eta desaktibatzeko aukera ezartzea, eta arauaren idazkeran genero-hizkera inklusiboa erabiltzea. Proposamen horiek onartu egin dira, eta Foru Aginduan prozedura bat finkatu da, bai profilak eteteko, bai, ondoren, etendako profilak egiaztatzeko, eta hizkera inklusiboa erabili da generoari dagokionez.

Iruñean, 2021eko urriaren 27an.

LANGILEEN ARAUBIDE
JURIDIKOAREN ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

(jatorrizkoa sinatuta)

Javier Lacarra Albizu